Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3167

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 31koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duena.

Erakunde honetan goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat hutsik dagoenez - 520010 kodea, 115. dotazioa -, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena eman duenez, erakunde honek deialdi publikoa iragartzea erabaki du, eranskinean azaltzen den lanpostua izendapen askez betetzeko.

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioek parte har dezakete deialdi honetan, beti ere eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Aipatutako baldintza berekin, honako hauek ere parte har dezakete, baldin eta lanpostuen zerrendetan deialdiko lanpostuak halako langileek bete ditzaketela adierazten bada: beste administrazio publiko batzuetako karrerako funtzionarioek, irakaskuntzako eta Justizia Administrazioko karrerako funtzionarioek, eta erakunde sanitarioetako estatutupeko langile finkoek.

2.– Aipatutako langileek edozein administrazio-egoeretan egonda parte har dezakete deialdi honetan, honako egoera hauetan izan ezik:

a) Eginkizunen etendura irmoa duten funtzionarioek, egoera horrek dirauen bitartean.

b) Norbere kontuetarako edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzian egonik, lanera itzultzeko eskatzen den gutxieneko denbora igaro ez dutenek.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3167

RESOLUCIÓN de 31 de mayo de 2011, de la Directora de Emakunde.– Instituto Vasco de la Mujer, por la que se anuncia la convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de trabajo de secretario/a de alto cargo.

Estando vacante el puesto Secretario/a de Alto Cargo, código 520010, dotación 115, de este Instituto, conforme a lo dispuesto en el artículo 46.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y previo informe favorable de la Dirección de Función Pública, este Organismo acuerda anunciar la provisión por el sistema de libre designación, del puesto de trabajo que se relaciona en el anexo, con arreglo a las siguientes,

BASES

Primera.– Condiciones de participación.

1.– Podrá tomar parte en la presente convocatoria, el personal funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos, siempre que cumplan los requisitos establecidos en el anexo a la presente.

Asimismo, y en las mismas condiciones, podrán tomar parte el personal funcionario de carrera de otras Administraciones Públicas, el personal funcionario de carrera docente y de la Administración de Justicia, así como el personal estatutario fijo de Instituciones Sanitarias, siempre que se trate de puestos en los que expresamente se prevea, en la relación de puestos de trabajo, la posibilidad de su provisión por este tipo de personal.

2.– Este personal podrá tomar parte en la presente convocatoria, cualquiera que sea su situación administrativa excepto:

a) El personal funcionario que se encuentre en suspensión firme de funciones, mientras dure esta situación.

b) El personal que, encontrándose en excedencia voluntaria por interés particular o por agrupación familiar, no haya permanecido el tiempo mínimo exigido para reingresar.

3.– Eskatutako baldintzak deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bete beharko dira. Esleitutako lanpostuak jabetzan hartu arte bete behar dira eskakizunak. Parte hartzeko betekizunak betetzen jarraitzen ez duten parte-hartzaileek ezingo dute esleitutako lanpostua jabetzan hartu.

Bigarrena.– Eskabideak.

1.– Hautagaiek Zerbitzu Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak, 15 egun baliodunеko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Eskabideetan, datu pertsonalak eta orain daukaten destinoa adierazi behar dute.

2.– Hautagaiek, idazkiarekin batera, curriculum vitae-a aurkeztu behar dute, honako hauek adierazteko:

a) Titulu akademikoak.

b) Administrazio publikoan eta enpresa pribatuetan betetako lanpostuak.

c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, hizkuntza-ezagupenak eta egokitzat jotzen dituzten beste merezimendu batzuk.

Eskabidearekin batera, eskatutako baldintzen eta adierazitako merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte; horiek dagoeneko Langileen Erregistroan badaude, ez dituzte aurkeztu beharko. Beste argitalpen, txosten edo agiri batzuk ere aurkez ditzakete, egoki iritziz gero.

Hirugarrena.– Ebazpena.

Deialdi hau Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen baten bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gehienez ere hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta biharamunetik aurrera.

Lanpostua esleitzen zaion pertsonak ezartzen den epean jabetu behar du lanpostuaz, eta hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du.

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, ebazpenaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 31.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

3.– Los requisitos exigidos deberán cumplirse en la fecha de publicación de esta convocatoria Boletín Oficial del País Vasco. El cumplimiento de estos requisitos deberá mantenerse hasta la toma de posesión de los puestos adjudicados. Aquellos participantes que no mantengan el cumplimiento de los requisitos de participación, no podrán tomar posesión en el puesto adjudicado.

Segunda.– Solicitudes.

1.– Los/las aspirantes dirigirán sus solicitudes, en las que harán constar sus datos personales y destino actual, a la Secretaria General de Emakunde, dentro del plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Los/las aspirantes deberán acompañar a su escrito un «curriculum vitae» en el que harán constar:

a) Títulos académicos.

b) Puestos de trabajo desempeñados, tanto en la Administración Pública como, en su caso, en la empresa privada.

c) Estudios y cursos realizados, conocimientos de idiomas y cuantos otros méritos estimen los/las aspirantes oportuno manifestar.

A la citada solicitud los/las aspirantes deberán acompañar la documentación justificativa de los requisitos exigidos y de los méritos alegados, salvo que estos ya consten en el Registro de Personal. Así mismo, podrán acompañar, cuantas publicaciones, informes o cualesquiera otros documentos estimen oportunos.

Tercera.– Resolución.

La resolución de la presente convocatoria se llevará a cabo mediante Resolución de la Directora de Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente al de la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

La persona adjudicataria del puesto deberá tomar posesión en el mismo en la fecha que se determine perdiendo la titularidad, en su caso, del puesto anterior.

Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición ante el mismo órgano que lo hubiere dictado en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV o recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de mayo de 2011.

La Directora de Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer,
MARíA SILVESTRE CABRERA.

ERANSKINA

Deialdiko lanpostua: goi-kargudunaren idazkaria.

Kodea: 520010.

Dotazioa: 115.

Kidegoak: C1/D1.

Destino-osagarriaren maila: 18.

Berariazko osagarria: VI-A.

Kokapena: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Idazkaritza Nagusia.

Herria: Vitoria-Gasteiz.

Hizkuntza-eskakizuna: 2.

Derrigortasun-data: datarik gabe.

ANEXO

Puesto de trabajo convocado: Secretario/a de Alto Cargo.

Código: 520010.

Dotación: 115.

Cuerpos: C1/D1.

Nivel de complemento de destino: 18.

Complemento específico: VI-A.

Localización: Secretaría General de Emakunde – Instituto Vasco de la Mujer.

Localidad: Vitoria-Gasteiz.

Perfil lingüístico: 2.

Fecha de preceptividad: sin fecha.